

3.^a Lekarotz-en, urtero bezela, euskal-azterketak dirala-ta, liburu batzuek, saritzat, igoiriko dira.

Ta beste gairik izan ez da otoitzez amaitu da batzaraldia.

Iruñian Aldundi - Jauregian, 1933'ko Oñilaren 18'an.

Batzar ontan, euskaltzain auek bildu dira: Azkue, maipuru; Kanpion, Olabide, Intzagarai, Intza, Lakonbe ta Elissalde eta urgazletatik Ormaetxea ta Angel Irigarai.

Otoitz egin da.

1.^a Ormaetxea jaunak *Acento Vasco* dala-ta bere lan bat irakufi digu. Lan au, Altubek egin dakoari erantzupen-edo dagokiona da. Euskaltzaindiak gogo onez entzun du. Gure EUSKERA-n argitaratuko da.

2.^a Aita Intzak esan digu: Gazteiz edo Araba aldeko euskeraren zabalkunderako zerbait egin bear litzakela. Ortara doa oraintxe sortu dan *Alkarte* bat eta oneri sorozpideren bat eman bear litzaiokela. Ortan dago Euskaltzaindia ere.

3.^a Iztegiaren itz beñitan jardun degu ta otoitz egiñik amaitu da batzaraldia.

Iruñian Aldundi - Jauregian, 1933'ko Oñilaren 19'an.

Euskaltzain jaun abek bildu dira: Azkue, maipuru; Kanpion, Olabide, Intza, Intzagarai, Lakonbe, Elissalde, ta urgazletatik, Ormaetxea ta Angel Irigarai.

Otoitz egin da.